

Erreka idorrek CO₂-aren igorpen globala handitzen dute

Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute · Elhuyar Zientzia

Orbelaren deskonposaketa oinarrizkoa da karbonoaren ziklo globalean, baina, duela urte gutxi arte, ez zen kontuan hartzen errekek prozesu horretan zuten eragina. Lurreko eta itsasoko ekosistemetan bakarrik oinarritzen ziren kalkuluak. Azken hamar urteetako ikerketek, ordea, frogatu dute errekek errektore biogeokimiko handiak direla eta karbo-

no asko isurtzen dutela atmosferara. Nazioarteko ikerketa bat urrats bat harago joan da oraingoan: erreken artean, aldizkako errekek edo erreka idorrak deitzen diren horietan jarri du arreta. Izan ere, orain arte zeharo gutxietsi badira ere, aldizka lehortzen diren errekek atmosferara uste baino CO₂-ekarpen handiagoa egiten dutela kalkulatu dute.



Euskal Herriko erreka idorrak aztertu dituzte EHUKo ikertzaileek. Zaila da erreka lehorretara ura noiz itzuliko den zehaztasunez jakitea; hortaz, erreketan pilatutako materia organikoa jaso, eta laborategian egin dituzte simulazioak. ARG.: Daniel von Schiller.

Daniel von Schiller
EHUko Landare Biologia eta
Ekologia saileko ikertzailea



Arturo Elosegi Iurtia
EHUko Landare Biologia eta
Ekologiako katedraduna



Bat-bateko errektore biogeokimikoak

Erreka bat lehortzen denean, bazterretako orbe-la eta egurra errekaaren ibilgu lehorrean pilatzen joaten dira. Aktibitate biologiko eskasa dago baldintza lehor horietan. “Ura itzultzen den momentuan, ordea, pilatutako materia organiko hori guztia berriz busti eta errektore biogeokimiko bortitza bihurtzen da erreka, inoiz baino gehiago”, adierazi du Daniel von Schiller EHUko Landare Biologia eta Ekologia saileko ikertzaile eta “[1.000 aldizkako erreka](#)” proiektuko diseinatzaileetako batek. “Ordura arte errekan latente zeuden komunitate biologiko asko berraktibatu egiten dira, batez ere bakterioak, baina baita ondoak ere. Aktibitate biologiko eta arnasketa-tasa oso handiak hautematen dira bat-batean, atmosferara CO₂-kantitate handia isurtzen dutenak”.

Aldizkako errekek karbonoaren zikloan duten eragina kuantifikatzen duen lehenengo ikerketa izan da hau. 22 herrialdeetako eta hainbat eremu klimatikoetako 212 erreka idor aztertu dituzte, ia 100 ikertzailearen artean. Eraitza, [Nature Geoscience](#) aldizkarian argitaratu dute: aldizkako erreketara ura itzuli eta orbela bustitzean gertatzen diren CO₂-pultsu ikaragarri horiek kontuan hartzen badira, eguneko CO₂-igorpena % 10 handitzen da. “Izan ere —gaineratu du von Schillerrek—, erreka idorrek munduko erreken azaleraren ia erdia hartzen dute”.

Euskal Herriko erreka idorrek

Euskal Herrian ere, aldizkako errekek pentsatzen duguna baino askoz arruntagoak direla dio Arturo Elosegi EHUko Landare Biologia eta Ekologiako katedradun eta proiektuko ikertzaileak: “Leku

hezeenetan ere, erreka idorrek egon badira. Lan honetan Euskal Herriko bi muturrak ikertu ditugu —Bardeak eta Arantzazu—, eta bai batean, bai bestean, erreka idorrek lehortu egiten dira tarteka”.

Klima-aldaketak erreketan duen eragina aipatu du Elosegik: “Klima-aldaketaren eredu guztiek esaten dute klima muturrekoagoa bihurtzen ari dela, bipolarra: euri-jasa gogorragoak eta lehorte luzeagoak izango ditugula. Horrek dakarrena da erreka gehiago lehortzea, eta, gainera, maizago lehortzea”.

“Euskal Herriko leku hezeenetan ere, erreka idorrek egon badira”

Bestetik, uraren giza ustia ketaren ondorioak nabarmendu ditu: “Leku askotan ura kentzen diogu ibaiei: isurialde mediterraneoan erregadioen bidez, eta isurialde atlantikoan aprobetxamendu elektrikoak ditugulako. Horien eraginez, erreken emaria murriztu egiten da, batzuetan errekek guztiz lehortze-raino, legez kanpokoa bada ere. Emaria murriztean, sedimentu asko pilatzen dira eta, neurri batean, erreka idorrek bezala funtzionatzen dute”.

Giza jardueren ondorioz aldizkako errekek gero eta arruntagoak izango direla ikusita, eta CO₂-aren igorpenean duten eragina jakinda, haien karbono-ekarpenean aintzat hartzeko deia egiten du aipatutako ikerketak. ●